




«Plisti plasta» igaro da Korrika

TOLOSALDEA ▶ Atzo goizean, Karrantzatik abiatu eta hirugarren egunera, hartu zuten Tolosaldeko herritarrek Korrikaren lekukoa

PARTE-HARTZEA ▶ Eguraldi euritsua eta haizetsua izan arren, jendea gogotsu irten zen korrika, ekimenarekin bat eginez ▶ 4-5



Goiko argazkian, Korrika 15 Villabonatik igarotzean. Behean, ezkerrean, Alegitik, eta eskuinean, berriz, Ikaztegietatik pasatzean, atzo goizean. IBON AZPILIKUETA/ASIER IMAZ

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

De felatio



Orain gutxi, pisukidea eta biok zinean izan ginen, asteburu hartan bertan estreinatu zuten pelikula bat, *Shortbus*, ikusten. Kuriositate pixka batekin joan ginen zinera, sexu esplizitu eta erreala erakusten duen hamaikaga-

rren pelikula izanik, periodikuek ez baitzuten filma *polemiko*, *transgresore* edo antzeko kalifikatiboren batekin saltzeko aukerarik galdu. Eta bai, egia da, ordu t'erdia eskasean ia sexu modalitate guztiak lantzen dira, mota guztietako orgiak erakusten ditu: hiru mutil ohe berean larrutan, autofelazio bat; baina ez da inolaz ere pelikula porno bat. Filmaren helburua ez da besterik gabe sexu eszenak bata bestearen atzetik erakustea, aitzitik, bere lorpen nagusia euren larrutal-

dien eta sexu konplexu eta arazozen birtartez pertsonaiak gertuko egitea dela uste dut. Are gehiago, nahiz eta euren ohe obsesio eta larru-jotzeak izan pertsonaien nondik norakoak gidatzen dituztenak, pelikulak badauka, sarri umorea tarteko, sexua naturalizatu edo desmitifikatzeko halako asmo bat.

Sexua gure obsesio handienetakoa dela esatea ez da ebidentziarik ebidenteena paper gainean jartzea besterik. Baina kurioso egiten zait sexu mito

egitea, ez dut ondo ulertzen horren zergatia. Hala esaten zidan lehengo batean pisukideetako batek ere, teoria feminista, *queer* mugimenduak eta antzekoak ikasteaz nazkatuta, bere sexualitatetik haratago begiratzen ez dakienaz obarioetaraino zegoela baitzioen. Izan ere, *queer* teorian interesatuta interneten informazio bila zebilela, gay bezalako kategoriak estandarizatu egi zeudelako euren buruak *bollera-lobo* bezala identifikatzen zituztenei buruzkoak aurkitu zituen. Eta *bollera-lobo* ez da klixe pijo bat besterik: normalizazio eta naturalizazioak alde batera utzi eta obsesio berriak sortzeko beste modu ergel bat.

IRUDI ZAHARRA ▶



Nola igaro ziren Tolosaldeko lehendabiziko Korrikak?

Erredakzioa ▶ Urte ugari igaro dira lehenengo Korrikak Euskal Herria zeharkatu zuenetik. Eskualdetik igarotako Korrikaren irudi zaharrak gogoratu nahi izan ditugu: Goian ezkerrean, bigarren Korrikaren une bat dugu, eta bere alboan seigarren ediziokoa; eskuineko argazkian bosgarren Korrika Tolosako Alde Zaharretik ikus daiteke. Aurtengoa ere igaro da Tolosaldeko. Hala, Tolosaldeko AEK-k eskerrak eman nahi izan dizkie era batean zein bestean parte hartu duten guztiak: «Korrika Txikitian euriari aurre egin diezuten guztiak; lekukoak eskuz esku eraman duzue-

noi; ibilbidean lekukoari arnasa eta goxotasuna eman diezuenoi; Korrika batzordetan antolaketa lanetan jardun diezuenoi; Korrikari gogoz ekiteko, edo ondoren indarbertzeko otordu goxoak prestatu diezuenoi; kaleak musikaz alaitu diezuenoi; euskararen alde diru laguntza eman diezuenoi; azpiegiturak eskainiz, trafikoa zainduduz, korrikaren berri emanez, Korrika kulturaleko ekitaldietan parte hartuz... ezin konta ahala modutara Korrika posible egin diezuten guztiak, mila esker. Eta gogoan izan datorren igandean hitzordua dugula Iruñean Korrika amaierako festan!». AEK

hilberria ▶

Francisca Telletxea
Etxeberria (Paquita)
ANDREA
Tolosan hil zen martxoaren 23an, 85 urte zituela

Nahiz eta agur esan behar beti barren-barrenean gurekin izango zara

Zure senarra ta seme-alaben partetik

Harren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetzela BIHAR ASTELEHENA, arratsaldeko SEIRETAN, SAN FRANTZISKOKO parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSA, 2007ko martxoaren 25ean

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IRITZIA ▶ MIKEL BALENTZIAGA (KONTSEILUKO KIDEA)

Udalerrien hizkuntza-politika nola ulertu

Kontseiluak berriki kaleratutako Euskal Herriko udalen eta herriko etxeen hizkuntza-politikaren neurketak azken 25 urtetako emaitza erakutsi digu hotz-hotzean. Hartutako erabakiak neurtu, erabaki horien zerbitzura erabilitako ballabideak aztertu eta horien betetze maila ikuskatu da eta datuen arabera, 0 eta 10 arteko nota jarri die guztiei.

Euskara nabarmentzeko gutxienez 7 puntu lortu behar baziren ez du udal bakar batek ere lortu, gutxi batzuk Tolosa artean, lortzetik gertu izan arren. Neurtutako udalen batez bestekoa 3,5 puntukoa izan dela ikusita argi dago normalizazioak agintzen duen oinarritzko notatik, 7tik alegia, salbuespenak salbuespen, oro har urrun gaudela oraindik ere.

Esan gabe doa hizkuntza-politikan hutsuneak agerian direla, udalen erdia euskararen ordenantza soil bat izatera ere ez da iritsi-eta. Ondorioz, herri horietan lege

babesik gabe bizi dira euskal hiztunak. Horri gehitu plan orokorrik gabe dabiltzala 66 herriotatik 33, noraezean edo inora joan gabe. Berebiziko garrantzia eman beharko genioke datuari 2 milioi biztanle baino gehiagorengan eragina duen hizkuntza-politikaz ari garenean. Ez da adostasunik helburuetan, ez arrazoietan ere. Nola uler daiteke bestela, udal bakar bat ere 7kora iritsi ez denean, alderdi bereko agintepean diren udalen artean 4,1 puntuko aldea izatea? Edo 3,20 puntuko aldea ezagutza maila berbera duten herrien artean? Edo 5,97ko aldea euskara ofiziala duten bi herriren artean? Nola?

Adibiderik ezkorrenak euskara ofiziala ez duten herrialdeetan topatu baditugu ere, eremu ofizialean emaitza bertsuak jaso ditugu batzuetan, eta zalantzarik bada nota hauei erreparatu besterik ez dago: Trapagaran (1,9), Portugaite

(1,57), Santurtzi (1,31), Barakaldo (1,13), Oion (0,85). Adierazgarria benetan.

Argi dugu ofizialtasunik ez izateak kalte egiten diola euskaldunari. Ez da hori bakarrik ordea. Euskara hizkuntza ofiziala denean, noiz hitz egingo dugu euskaldunari muzin eta trufa egiten dion udalaren arduraz? Zein epaitegik babestuko ditu euskaldunaren eskaerak? Bien bitartean, Euskal Herriko herrialde guztietan euskaldunaren hizkuntza-eskubideak dira, ez besterenak, sistematikoki urratuak direnak udalen zerbitzuetan eta udal-lanpostuetan. Begira bestela udalez udal Kontseiluak 55 galderatan erakutsi digun errealitate, argazki, agiri eta guzti.

Tolosako Udalak 6,48ko puntuazioa jaso du. Zazpi puntu ez baina hortxe du eskura. Udalaren, herritarren eta euskararen gizarte-eragileen arteko lankidetzaz abiapuntu ezin hobea du Tolosak etorkizunari begira.

AZOKA ▶

Eguraldi txarraren ondorioak azokan ere

Landare batzuegan nabaritu da; dena den, eskaintza oso zabal izan zen

PABLO ALBERDI

Aste honetako eguraldi txarrak ondorioak izan zituen landare batzuegan. Babak edo ilarrak, loretan zeudela, une txarrean sufritu dute elurra eta kazkabarraren eragina. Beste landare batzuk ordea, zainzuri kasu, ez dute asko nabaritu eguraldi txarraren eragina, lurrazpian hazten baitira.

Eskaintza hala ere, oso zabal izan zen atzokoan, eta dagoeneko hasi gara ikusten mahai askotan udaberriko zerrenda polit bat: ilarrak, patata berriak, tipulinak, zainzuriak edota zizak, esate baterako.

Berdura plazan ere udaberriko apaingarriko landareen zerrenda guztiz osatua ikusi genuen. Geranioak, geranio hiedrak, alegriak edo eta begoniak izan ziren salgai.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Begonia	1,20	-
Alegria	1,20	-
Erromeroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak

Errezil sagarra	0,60	8,00
Kiwi	3,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Erremolabka	1,50	2,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Emakumearen egoera gizartean zein dela iruditzen zaizu?

Arlo askotan ez da berdintasuna aplikatzen. Emakumearen papera gizartean, edozein gizakiarena izan behar da: gizarteak aukera berdinak eskaini behar dizkio gizonari zein emakumeari, besterik gabe. Bereizten gaituzten gauzik nabarietak indarrarena eta sentibiltatearena direla diote: zer esan nahi du horrek, ez dagoela emakume indartsurik eta gizon sentibilerik? Neanderthal garaian ere errespetu eta begirune gehiago zitzaion emakumeari, baina bueno. Guk egin, eta guk desegin, holakoak gara gizakiak, aldrebesak, eta lotsa ematen duen espeziea.

Oraindik ere lan handia dagoela egiteko iruditzen zait niri. Arlo askotan emakumea gizonarekin konparatuta oso behe-

an dago. Esaterako, oso gutxitan ikusten duzu ardura handiko postuetan emakume bat. Zergatik da hori? Guztien esku dagoela uste dut egoera aldatzearena.

GORKA ▶

Egia da garai batetik hona gauzak asko aldatu direla, baina pauso asko eta handiak emateko gaude oraindik. Dena den, eskerrak bere garaian emakume batzuk gogor borrokatu zuten eta horiengatik gaur egun ditugun eskubideak ditugun, bestela, orduan bai egongo ginatekeela gaizki. Lehen emakumeari ez zitzaion ezertarako eskumenik ematen.

MAITE ▶

Erosketak egiteko garaian zer izaten duzu kontuan?

Exajeratua da erabiltzen den plastikoa eta kartoia, gehiegizkoa. Yogurrak erosterakoan,

bolloak erosterakoan, erosketak biltzeko erabiltzen den poltsa kopurua... Gehiago fijatu beharko ginateke. Nik, erosketetara noanean, etxetik poltxak eramaten ditut batzuetan.

▶

Granel modalitatean erosteko aukerak handitu beharko liragiteke. Horrela ez genituzke horrenbeste pote edo poltsa erabiliko, baina ez da hola erostea erreza, ez dagoelako ia aukerarik.

▶

Korrikak euskarari zertan laguntzen dio?

Korrikaren dirua AEK euskaltegiarentzako izaten da, berak antolatzen du, honen *filosofia* euskal herritarrek izanda diruak ez duela bitarteko bat izan behar bakoitzak bere herriko hizkuntza ikasteko. Diru hau honetarako erabiltzen da.

Ezinbesteka da AEK berdin funtzionatzea Korrikarik gabe! Heldu!

▶

Nik euskaraz hitz egiten dut egunerokoan: lanean, etxean, lagunekin. Euskalduna denak horrela egin beharko luke. Izan ere, euskararen normalizazioaren alde lana guztiok egin behar dugu. Korrikak ere horretan laguntzen du eta ez diogu ba horrelako ekimen bati bizkarra emango, ezta?

IKER ▶

Korrikarena ondo ikusten dut, dudarik gabe. Baina nahikoa al da? Benetan baliagarria al da? Nik hartuko dut parte, horrelako ekimenean aldekoa naizelako. Euskarak egiten gaitu euskaldun eta ezin dugu utzi gure kulturaren oinarri den euskara galtzen. Gutxiengoan hizkuntzen alde egiten den oro dago ondo eta, noski, Korrika ez da salbuespena izango. Beraz, eutsi euskarari eta denok Korrika!!

NAGORE ▶

URTEKO LIDERRAK
DIESELAREN HIL ABETEA GSPATUKO DU

CITROËN GRAND C4
CITROËN C4

VISIOSPACE

Citroën C2 HDi
9.900€*tik
aurrera
C2 gasolina
8.400€*tik aurrera

Citroën C5 HDi
18.900€*tik aurrera
C5 gasolina
17.600€*tik aurrera

Citroën C3 HDi 10.600€*tik aurrera
C3 gasolina 8.900€*tik aurrera

Citroën C4 HDi 14.700€*tik aurrera
C4 gasolina 12.500€*tik aurrera

Citroën XSARA PICASSO HDi
15.400€*tik aurrera
Xsara picasso gasolina
13.700€*tik aurrera


IROVI, S.A. Citroën Konzesionario Ofiziala • Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITROËN

KORRIKA 15 ▶

Tolosaldeak Korrikarekin bat

Korrika 15, Iruñerako bidean, bere hirugarren egunean eskualdetik pasa zen atzo goizean. Euria gogoz egin zuen arren, eskualdeko herritarrak are gogo gehiagorekin eutsi zioten Korrikaren oihuari



Euria gogorren ari zuen unea izan arren, bikiak Tolosatik Anoetarako bidearen hasieran gogotsu egin zuten korrikalariak elkar pasaez. A. IMAZ

Emio Higazinen Kudeaketa enpresa planariaren da, bere solapoen eta kudeaketa zerbitzuak zentralizatzeko asmoz, datuaren espazietan. Hala, 2008. urterako, bere Tolosako bulego eta periferiko bulegoak zentralizatu egingo dira, non orain jende bakoitzaren bulegoak daude.

Andoaingo Irribidea: Andoain, Goko (Aste 1, bakua) Tel.: 943 30 40 38 / 943 30 35 30 Fax: 943 300 138 emio@emio.com

A. IMAZ - N. GARZIA

Korrika 15ekin bat eginez, atzo goizean eskualdeko hainbat herritar, euria zela eta, eplisiti-plasta, plisiti-plasta, Korrikak oihua eginez kalera irten zen, euskararen aldeko ekitaldi honetan parte hartzeko.

Euria gogotik ari bazuen ere, Karrantzatik abiatatako fargueta eta jende katea eskualde-ira iritsi zen atzo goizean. Ikazlegiarrak izan ziren eskualdean Korrikari ongi-etorria

ematen lehenak. 08:40ean, Martxa ederrean eta euripean, euskararen aldeko giza mar- txak ondorengo herri hainak zeharkatu zituen: Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Ibarra, Tolosa, Anoeta, Iruña, Villabona, Zuz- kil eta Aduna. Aduna atzean utzi eta aurrera jarraitu zuen Korrikak. Andoainera aurrena, trutera bidan.

Jendea gogotsu ibili zen bai eskualdeko herritartean, baita herri handiengotian, izan ere, Korrika 15ek martxa bizia ba-

terramakien. Euskararen eta herritarren aldeko oihua zire- la medio, megalonik entu- ten zirenak, herritarrek ez zu- ten etsi eta gogoz eutsi zioten Korrikari.

Korrika amaitu eta gero ek- italdi ugari antolatu zituzten hainbat herritar: txokolatada, bertso-bazaria, hamaitakoa- k, kontzertuak... Tolosan, egu- raldi txararangatik hamaita- kkoa Eto-ste elkarrean egitea erabaki zuten azken orduan. Aurretik, Bonberenaiko tra-

ranga herriko kaleetan zehar ibili zen.

Tolosan eta Leizaldean Herriak, diada bi urte bezalaxe, Korrikan parte hartu nahi izan zuen eta horretarako Zubi Be- rrin hartu zuten lekuko.

Korrika apirilaren 1ean Iru- ñera iritsiko da. Karrantzatik atera eta 10 eguneko Euskar He- rria zeharkatu eta gero, ondo- rengu jolasean: *Heidu herrizari!* *Heidu hiritzari!* *Heidu euskarlari!* *Heidu euskarari!* *Heidu le- kuari!* *Heidu!*



Villabonatik Zuzkilerako zuban jende multzo handia bildu zen Korrikaren aldeko oihua, saltoka eta irrifarrez errepikatuz, euria beldur handirik gabe. A. IMAZ



Herrialdetik pasaearen Eneko Ariztaren Lagunak. A. IMAZ



Anoetan sartu aurreko une euriak baino abak. A. IMAZ



Txikiak korrika eta heldue omenakia. Zuzurkigo euskal emakumei omenaldia egin zieten. A. IMAZ



Iragarki laburrak ▶

LANA
Gidariak. Erakunde publikotarako. 943 44 48 66.
Harreragileak. Udako-behararako. 943 44 48 66.
Garbitzaileak. Marmela, sukaldaritza, gordinak, langileak... behar dira lanpostu linoetarako. 943 29 82 32.
Suhiltzaileak. Basozainak. Erantzukizun, kalitatezko. Erakunde publikotarako. 943 32 66 63.
Hezikuntza. Eusko Jaurlaritzak.

Berehalako desaldia. 1172 lanpostu gorpuz-hezikuntza, haur-hezikuntza, lehen-hezikuntza, ingeles, eskola, musika, A.E, P.T eta aholkularitza. Informazio zabaldu. 943 32 66 63.
Sukaldaria. Villabonako sukaldaria behar da. 943 69 19 33.
Eskualdatza. Jubilatzaileak, lortu den eskualdatzen dut material eta gutuzkin. Lanetan. Kokapen ezinohiea. Baldintza interesgarriak. 626 30 56 89

Villabona - Kultura

HAUR ANTZERKIA

Martxoak 25
Igandea
17:00etan
GUREA
ARETOAN

"Eskola hutsik"

Udal Kultura Batzardea | Gipuzkoako Foru Aldundia E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

GRUPO OTEIC

TOLARGI, S.L.-k lanpostu hau behar du:
Ofizial Argiketaria
OE-2556 errof.

- Lehen Mailako Lanbide Hesketa Elektrizitate edo Elektronikari edota Baloikidea.
- B Gida baitamena.
- Euskararen ezagutza.

Informazio gehiago www.tolargi.com edo bere bulegoetan, **Pablo Gorosabel 34 B, Tolosan.**

Euskarak aurkezteko epena apirilaren 15an amaituko da. Aukeratuak hautagaiak besterik ez zale erantzun.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Lau urteren ondoren ere, gurean

Postontzietan jasotzen den egunkaria, eskualdeko egunkari euskaldunaren urteurrena gaur da; trabak izan dituen arren, beti atera ditu gure berriak



HITZA irakurleak, papereko edizioan, eta webgunearen bidez. N. URBIZU



NEREA URBIZU

Lau urtez Tolosaldeko postontzietan eskualdeko egunkari euskalduna jasotzen: ia hiru Leitzaldean. Baina aurretik, proiektua jaio zenean Galtzaundi euskara taldearen eta *Egunkariaren* artean *Tolosaldean Eguneroko* eskualdeko prentsa euskalduna sortzea erabaki zuten.

Tolosaldean Eguneroren azken alea Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, Guardia Zibilek *Egunkaria* ixtearekin batera etorri zen, 2003ko otsailaren 20ean, hain zuzen.

Euskal prentsa jorratzen zuen egunkari bakarra itxi zutenean Tolosara etorri ziren, *Tolosaldean Eguneroko* egiten zen bulegora, alegia: garai horretako diseinu bera mantenduz, *Egunkariakok* *Euskal Herrian Eguneroko* egunkaria izenarekin argitaratu zuten. «oztopo legalei aurre egin ahal izateko», gehienbat.

JOXEMI SAIZAR ▶ IRAKASLEA ETA HITZAKO ZUZENDARI OHIA

«Hasieran oso primitiboa zen dena, lehenengo HITZA zen»

Hainbat artikulu idatzitakoa da Joxemi Saizar (Tolosa, 1961). HITZAKO lehenengo zuzendaria, Galtzaundiko koordinatzaile 10 urtetan... Ogibidez irakaslea bada ere, biziki maite du ere idaztea, gertuko informazioa ematea, alegia.

‘Egunkariaren’ ixtearekin une latzak pasako zenituzten. Bai. Lanean jarraitu genuen: Egunkariakoak eta gu geunden erredakzio beretik lanean, Galtzaundiko lokalean ere izan ginen... Kondizio prekariotan geunden, egia esan. Diru la-

guntzak ere eskatu genituen, noski, bai *Eguneroko* egiteko eta baita gero HITZA izango zenerako: enpresek, eskolek, talde, elkarte, nahiz sindikatu, jaso genuen laguntza. Lehen HITZA sortzerako enpresa berrira pasa ginen. Lehenago Tolosaldeko komunikabideak SL zen, eta orain Tolosa Herria Hedabideak SL.

Proiektua era batera arriskatua zen.

TEPERen barruan sartu zen *Tolosaldean Eguneroko* eta garai haietan udaletxe askotan

zueudenek babes handia eman zioten proiektuari. Enekoitz Esnaolak ere lan handia egin zuen, meritu hori aipatzekoa da, ereduia izan da. Ni aldizkarietan idaztean ohituta nengoen, Esnaola *Berriatik* bidalita-koa izan zen, egunkaria egiten



NOELIA LATABURU

bete dituzte ere, eta libururen bat egingo dugu, Alpino mendi taldearekin zerbaite ere badago... Hiru hauekin harremana dut, edo izan dut, eta horregatik, zerbaite egingo dut.

HITZAK berak zituen helburuak bete direla uste al duzu?

Nik uste dut baietz, helburu nagusiak bai. Baina egia da ere, hasieran ezin genuela gerorik imajinatu, ezin zen ikusi. Erreferente bakarra, izatekotan, Galtzaundi zen, baina berria zen bestela ere. Herri komunikazioa, euskararen normalkuntza... oso gertutik ikusi ditugu.

Egunero HITZA desberdina ikusten al duzu?

Nik oso gertutik jarraitu dut, eta ez dut alde handirik ikusten. Hasieran zegoen batek nik uste dut webgunearan ikusiko lukeela alde, Leitzaldea ere dago, maketazioa... Hasieran oso primitiboa zen dena, erreferentziarik ez genuen, lehen HITZA zen: orain, ordea, 7 daude. **HITZA gehiago imajinatzen dituzte?**

Bai, asko. Eremu euskalduna behar da; oraindik Gipuzkoan baten bat geratzen da. Nafarroan, Arantz-Betelutik esan izan dute ere, baina ez da hain erraza, diru iturriak behar direlako, banaketaren kontua oso zaila da baserri eremu horietan... Faktore asko hartu behar dira kontuan. Bilbon, Iruñean... horietan errazago ikusten dut. ◀

Ibarra Udalak
Zorionak HITZA!

bazekielako, baina beste guztiak berriak ziren. Komunikabide alorren gabezia zegoen ere, aitzindaria izan zen Euskal Herrian: 28 herriri buruzko informazioa egunkari batean, euskaraz. Banaketaren kontua zaila zen: etxean jasotzeko kontuak beste inplikazio bat eskatzen zuten. Nolabaiteko fidelotasuna lortzen da horrekin. **Irakaslea zara ogibidez. Zer nahiago duzu, irakastea ala idaztea?**

Irakasle oso gustura nago, nire umetxoekin, baina idaztea ere gustatzen zait, Argian ere idazten dut zer edo zer.. Herri komunikazioa polita da, gertuko. Biekin geratzen naiz. **Ezin gauzak egitez utzi. Zein proiektutan zaude orain?**

Udaberri dantza taldearekin loturiko liburu batean kolaboratuko dut, ikastolak 40 urte

Tolosaldean Egunerok argitaratzen zuenak orduan *Galtzaundi* izena hartu zuen, eta Galtzaundiko egoitzan egiten zuten lan. *Galtzaundi* honek formato txikia zuen, aldizkariaren antzekoa, alegia. «Goizetan Galtzaundi ateratzeko lan egiten genuen, eta arratsaldean, berriz, *Egunkaria* koek», gogoan du garai hartako kazetari batek.

Bi enpresek lana etenik gabe egin zuten, ezer gertatu izan ez balitz bezala, egunero berriak argitaratzen, eta hasierako eta oinarriko helburuak ahaztu gabe: euskararen normalizazioaren alde, eta informazioa eskaintzen, hain zuten ere.

Inauterien garaia zen, eta Galtzaundi, aldizkariaren formatoa utzi eta gaur egun duen itxura hartu zuen berriro ere: Ostegun Gizenetik aurrera egunkariaren itxura hartu zuen *Galtzaundik*. Guztira, 27 ale argitaratu zituzten *Galtzaundi* izenarekin. TOLOSALDE-

ko HITZAKO lehen alea, gaurko egunarekin kaleratu zen lehen aldiz, duela 4 urte: gurekin, gure artean.

24.000 begirentzat lanean

Lehenengo ildotik jarraitzen du bi eskualdeetako egunkari eskualdunak. Bai *Tolosaldean Egunerok* bere garaian eta baita HITZAK ere. Eskualdeetako berriak eman nahi ditu, irakurtzeko garaian era errazean, ulergarrian, argi. Euskararen normalizazioan ere bere aportazioa egin nahi izan du, euskara gure hizkuntza bai ahoan eta bai begietan egon dadin.

Gaur egun, 12.000 irakurle ditu, eta internet bidez, www.tolosaldeko-hitza.info webgunearen bidez, berriz, egunero 1.400 lagundik gora bisitatzen dute.

Irakurleen berriak, iradokizun, nahiz iritziak gero eta leku gehiago hartzen ari dira pape-reko edizioan ere; batez ere, webgunean jasotakoei esker.

KRONOLOGIA ▶

2001-12-18. *Tolosaldean Egunero* egunkariaren lehenengo alea kaleratu zen Tolosaldean.

2003-02-20. *Egunkariaren* itxiera.

2003-02-21. *Galtzaundi* izena hartuko du egunkariak.

2003-03-25. TOLOSALDEKO HITZAREN lehenengo alea.

2003-12-21. Webgunea edizio jarraituarekin hasi zen.

2004-05-21. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN lehen alea postontzietan.

2006-12-18. Eskualdeko egunkariaren proiektuak 5 urte bete zituen.



HITZAK gizartearen ere leku garrantzitsua du: Korrikan, pilotalekuan, lehiaketetan... Aurten IV. Hitza Txapelketa antolatuko dute. L. MONTES

Irakurleen iritziak ere kontuan hartzen

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, irakurle batzuen artean inkesta bat banatu zuen, produktua hobetzearren.

Lau alor desberdinen gaineko galderak egin zituen hitzak: diseinuaz, edukiaz, kazetaritza eta euskaraz galdetu zen. Diseinuari dagokionez, orokorrean irakurle guztiek «aldaketa bat behar duela» azpimarratu zuten, orrialde gehiago beharko lituzkeela, eta arina behar duela.

Edukiari buruzko erantzunak interesgarriak izan ziren: orokorrean denetarik dagoela diote askok, baina «hirigintzari buruzko albiste gehiago» jorratu beharko lituzkeela ere bai. Kazetaritza lantzerako or-



HITZA banatu egiten da. HITZA

islaturik ikusi nahi dituzte askok. Baina %90ak «pluraltasuna eta autonomia erakusten» duela azpimarratu du.

Euskarari dagokionean, «normalizazioan ezinbesteko lana egiten» duela adierazi dute, eta «normalean hutsegite nabarmenik ez» duela egiten. Txukuntasuna, erabilitako adjetiboetako bat izan da.

HITZAK lau urte bete ditu, eta irakurlearen hobearekin lan egiten du. Helburu nagusia eskualdeko albiste berri ematea da, euskaraz, eta objektibotasuna galdu gabe. HITZAK irakurleen beharra du; HITZAK, berriz, irakurleek egunkari honen beharra izatea nahi du. ◀



TOLOSALDEKO HITZAREN lehenengo alearen azala. HITZA



Alegiko Udala

Zorionak
eta HITZA ematen jarraitu!

Urte askoan Hitza!

Villabonako Euskara Zerbitzua

euskara goxoa gurea
egiozu hozka!



Irurako Udala

Zorionak HITZA!

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Bidegoian. Apirilaren 24an Andoni Zelaia presoaren epaiketa izango da Madrilan, 10:30ean. Udalak autobusa doan antolatu du apirilaren 23rako, 16:00etan. Izena 659 942 759 telefonoan eman behar da hil honen 30a baino lehen.
Ibarra. Udalak eta Uzturne ikastolak gurasoentzako tailerrak antolatu ditu, arazoei nola aurre egin aztertzeko. Izen-ematea, udal txeko gizarte zerbitzuetan.
Tolosa. Laskorain Ikastolako ikasle ohien afaria antolatzeko bilera egingo dute etzi, 19:00etan Kultur Etxean.
Tolosa. Ezker abertzaleak deituta, batzarra etzi, 19:00etan, Kultur Etxean: Egoera politikoa eta maiatzeko hauteskundeak aztertuko dituzte.
Tolosa. La Jara Extremadurako Zentroak irteera antolatu du Extremadurara maiatzeko zubirako Trujillo (Caceres, Espainia), Don Benito (Badajoz, Espainia), Zafra (Badajoz), Jerez de Los Caballeros (Badajoz) eta La Serena (Badajoz) bisitatuz. Prezioa: 230 euro. Izen-ematea, 675 707619.

ZINEMA

Tolosa. Gazte txoei zuzenduriko *Bajo cero* filma izango da ikusgai gaur, 17:00etan.
Tolosa. *Diamante de sangre* filma gaur, 19:30ean, eta bihar, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
 Leiza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Bihar
 Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegan.* (Errepikapena).

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Arnasari eutsi, eta gora!

VILLABONA ▶ Halterofiliako Euskadiko Junior Txapelketa atzo arratsaldean egin zuten eta Villabonako pultsulariak ikustera jende ugari hurbildu zen



Halterofiliako Euskadiko Junior Txapelketako irudiak, atzo, Villabonan. N. GARZIA

ERREDAKZIOA

Eskualdeko hainbat herri-tan pilotari dezente aterratzen diren bezala, Villabona-Zuzurkilgo gazteek ohiko kiroltako afizioaz gain, hain ohikoa ez den kirol batekiko zaletasuna dute: halterofilia.
 Atzo Villabonako parroki etxean izandako Euskadiko Junior Txapelketa horren erakusgarri argia da. Eskualdeko Dana-Olaederra taldea buru belarri dabil kirol honetan, eta ez bakarrik junior mailan, izan ere, martxoaren 3an talde honetako alebin eta infantil guztiak, seiak, Espainiako Txapelketarako sailkatu ziren.
 Atzoko txapelketari dagokionez, Euskadiko Txapelketa izateak berez garrantzia bazuen ere, eskualdeko pultsularientzat are garrantzitsuagoa zen, Espainiako Junior Txapelketako sailkapenerako balio baitzuen.
 Euskadiko Txapelketa 17:00etan hasi zen, eta jende ugari bildu zen Villabonan dagoen parroki etxera, herriko pultsulariak ikusteko asmoz. Hasiera batean txapelketa polikiroldegian egitekoa bazen ere, azkeneko unean eguraldi txarrarengatik bertan egitea erabaki zuten. Erredakzio hau ixterako, txapelketa amaitzen zen oraindik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaltxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOIA

Telefonoa: 943651063
 Posta elektronikoa: 012244aa@hezkuntza.net
 Haur txokoa
 07:30etik aurrera
SAMANIEGO IKASTETXEA
 • HAUR HEZKUNTZA (2 URTETIK HASITA)
 • LEHEN HEZKUNTZA

D EREDUA - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA

MATRIKULA EPEA: OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

Telefonoa: 943651387
 Posta elektronikoa: 012980aa@hezkuntza.net
 • DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
 • ZEREGINEN IKASKUNTZA GELA
 • LAN HASTAPEN EGOKITUA
 • BATXILERGOAK

Sanmaniego-Orixe euskal prentsarekin bat!